

Zopa parrillan

Mabi Revuelta

Salda berotzen den bitartean –esan zuen Oliviak– jesarri zaitez eta nire istorioa kontatuko dizut:

“Garai batean jendea itsasoratu egiten zen platertxo horren errezetaren bila, bai aberastasun liluragarrien bila deituak (bizitza-janari gisa hainbat dohain egozten baitzizkioten), bai perfekziorik gorenena lortzeko beharrian zientifikoengatik (dakusazun azaleraren gainean likidoak grabitatu ahal izatea ahalbidetzen duen sistema konplexua ahaztea inozokeria bailitzateke: urrezko esfera horrek mundu galkorra -Lurra- eta astroen ez-galkorra banatzen baititu).

Ez nuenez bazter geratu nahi, nik ere itsas-ontziratzea erabaki nuen, bai zorotasunaren harri moderno hori lortzeko grinak akuilatua, bai sirenen kantu sentzualak erakarria. Ez nintzatekeen lurrera itzuliko Fantasiorekin hitz egin arte, adats zuriena eta jantzi beltzenak dituen hori. Toki arrotz eta argitsu batean aurkitu nuen Portugaletik urrun (munduko mugetatik hurbil), Évorako eliza bateko kaperara jaitsiz sartu nintzen bertara”.

–Hitz egin al zizun? Zer da zopa parrillan? –esan zuen berriro Popeyek, egonarriz.

Olivia hurbildu egin zen: “Ura da!–esan zidan marmar batean- ezereza bi plateren artean...”.

